

Ollon 1777 urtean emandako testuak

FRANTZISKO ONDARRA *

Aldizkari honetan (*FLV*, 49 (1987), 117-140) ¹ argia ikasi zuten testuen egilearen bila ari ginela, Martin Josef Markotegi izeneko bi apaizekin topo egin genuen, eta horietaz zenbait datu bildu genituen. Orain (1996an) konaturatu gara horietako zaharrena egiaz euskal idazlea izan zela. Endrike Knörr-ek Luis Villasanteren omenez prestatu zuen lanean (*iker-6*, 1992, 223-242)² osabak 1777an Ollarango Ollo herrian emandako euskal testuak eskaini zizkigun. Guk, berriz, hasieran aipatutako laneko Ebanjelio itzulpenak ilobaren lana izan zitezkeela pentsatu izan dugu.

Biak Goñi herriko semeak dira, osaba bertako parroku izana luzaro; iloba, bertako benefiziatu lehenbizi eta Azantzako parroku gero, azkeneko urteak bere jaioterrian igaro zituela, lanerako ezindurik aurkitzen zelarik. 1777an Olloko parroku zenaren berri ere ematen dugu, eta ez dugu ahazten honen ondoren etorri zena eta denbora puska batez Martotegien garaikide izan zena Olloko benefiziatu eta parroku bezala.

Osaba-iloben berri Knörr (*iker-6*) eta Jimeno Juriok (*Gran Enciclopedia Navarra*) ³ eman dute. Ahalegindu gara horiei buruz datu gehiago biltzen. Gainera, guk dioguna ez badator bat autore horiek esan dutenarekin, jakinararen gainean eta aztertu ditugun agiriak arretaz begiratu ondoan gertatzen da hori.

1. MARKOTEGI OSABA-ILOBAK

Martin Josef Martokegi izeneko bi apaizena izan omen zen 1777ko eskuidatzia dakarren koadernoan, eta Knörr-en ustez osaba-ilobak dira beharba-

* Euskaltzaindia. Academia de la Lengua Vasca.

1. Francisco ONDARRA. «Textos en vascuence en el pueblo de Goñi». *FLV*, 49 (1987), 117-140.

2. Endrike KNÖRR. «Un sermón de Martín Joseph Marcotegui, de Goñi, predicado en Ollo (1777)», *iker-6*, Luis Villasanteri omenaldia / Homenaje a Luis Villasante, EUSKALTZAINDIA, Bilbao 1992, 223-242.

3. *GEN* (Gran Enciclopedia Navarra), VII, 223. Ik. Marcotegui Guridi.

da. Egia esan, ez dugu inon aurkitu idatzirik bata bestearen osaba eta iloba direla, baina uste hori egia bilakatu da. José Luis Vera Arrechea-k, Goñerriko bost herrietako parroku denak, jakinarazi digunez, Markotegi zaharraren gurasoak «Martin de Marcotegui» eta «Maria Miguel Beraza» dira; eta Markotegi gaztearen aitaren aldetiko aitajaun-amandreak ere horiek omen dira. Gure azterketen arabera, lehen Markotegiren ama «Maria *Josepha de Arbizu*» da, tontsuradun egin zenean ezarri zutenez ⁴, okerrez noski; bigarrenaren aitaren aldetiko aitajaun-amandreak, gero ipintzen dugun bere bataio agiriak erakusten duenez, Goñiko parrokia liburuak dakartzanak berak dira. Beraz, argi dago osaba-ilobak direla Goñi eta Azantza herrietako parroku izan zirenak, haren anaia zen «Francisco Martin de Marcotegui»ren semea izan zela bestea. Baina hemen ere badago okerrik: iloba tontsuradun egin zutenean, bataio agirian bezala, «Francisco Martin» da aita ⁵; baina «Martin Francisco ... dueño dela casa Elcoiengoa» esaten da, etxe horren jabe bezala bere semearen alde bozkatzten duenean, hau Goñiko parrokugai bezala aurkezten denean ⁶, eta «Martin Francisco» ere 1788 urteko agiri batean ⁷.

1.1. Markotegi osaba

1.1.1. IEB-ko agiriak aztertu ondoren, gure ondorioa izan zen 1734 urtean jaio zela, 1807ko irailaren 22. ean 73 urte dituela esaten baita ⁸. Hori bera dio Urdaozko parrokoa den Josef Antonio Ibarrolak urte horretan: «Marcotegui .. se halla constituido en la edad de setenta y tres (años)» (98). José Luis Verari ⁹ esker badakigu urte horreko azaroaren 24. ean jaio zela eta 28.ean izan zela bataiatua, sendotza 1752ko irailaren 9.ean hartzen zuela, eta gurasoak Martin de Marcotegui eta Maria Miguel Beraza izan zirela, Goñikoak denak: bai gurasoak eta bai semea.

Apaizgora ailegatzeko bidea 1755eko irailaren 19. ean hasi zuen, tontsuradun egin zelarik data horretan ¹⁰. Ordena txikiak 1759ko martxoaren 30-31 egunetan hartu zituen¹¹, subdiakono 1761eko irailaren 11.ean egiten da ¹², diakono hurte horretako abenduaren 11.ean ¹³, eta apaiz 1762ko otsailaren 24.ean ¹⁴. Ez dakigu non egin zituen ikasketak, eta ez dugu aurkitu batxilerra edo lizentziaduna izan zen ala ez, berak ez baitu holako titulurik ipintzen izenpearen ondoan, eta beste inork ere ez du aipamenik egiten titulu horietaz.

Tontsuradun dela, Aizpungo parrokian sakristau titulua ematen diote «por todos los años de su vida», eta hau eransten dute: «se halla lejitimamente (sic *-j-*) igniciado (sic *ign-*) de Prima tonsura», 1756ko abuztuaren 27.ean gertatzen dela izendatze hori¹⁵. Dakigunez, Aizpunek Goñi herriare-

4. IEA (Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa), *Matrikulen Liburuak*, Miranda eta Argaiz-en 2. Liburukia, 190 hh.

5. IEA, idem, Lezo eta Palomeque, 54 hh.

6. IEA, Ollo 1693, 22, 17-18at.

7. IEA, Navarro 2375, 10, 3. orr.

8. IEA, Navarro 2691, 7, 57.

9. GEA (Goñiko Eliza Artxiboa), 1996.04.11.ean parrokuak gutunez jakinarazia.

10. IEA, *Matrikulen Liburuak*, Miranda eta Argaiz-en 2.a, 190 hh.

11. IEA, id., 258at.-259at.

12. IEA, *Matrikulen Liburuak*, Miranda eta Argaiz-en 3.a, 20at.-23.

13. IEA, id., 28at.-31.

14. IEA, id., 34-36.

15. IEA, *Tituluen Liburuak*, 58, 116 hh.

kin mugatzen du eta biak Goñerrin daude kokatuak. Zilegieta (agirian «*Ziliguetta*») herriko bikariotza lortzen du 1761eko abuztuaren 13.ean, «clerigo de menores hordenes» dela ¹⁶, hurrengo orrialdean okerre edo beste hau esaten bada ere: «se alla (sic) yniziado de *prima tonsura* en la edad y demas calidades nezesarias» (463at.). Bonaparteren mapan (*Carte de sept provinces basques*), Ibargoiti ibarrean dagoen herri hau, «*Ziliguetta*» idatzi du Printzeak, gure iturriak bezala, eta goi-nafar hego aldeko euskarari mintzatzen dira bertakoak Goñerrikoak bezala.

Pablo Amezketa hil delarik eta Goñin parrokiarik ez dagoelarik, zera esaten du 1765eko apirilaren 17.ean «dⁿ Martin Jph Marcotegui Presvitero de la Parroquial de Lugar de Goñi» denaren prokuradoreak: Markotegi izendatu eta aurkeztu duela parrokiako herriak gehiengoz (1.orr.) ¹⁷. Bozketan horren berri agiri multzo batean (3-42at.) ematen da, hautesle guztien eta bakoitzaren etxe-izenak agertzen dela agiri hasieran, eta bukaeran errepikatzen dela -Goñi herriari eskaintzen diogun atalean jakinarazten ditugu etxe-izenak etab.-Bozketan urte horretako martxoaren 15.ean izan zen Goñin.

«Don Pablo de Amezketa» 1765eko martxoaren 12.ean hil zen, «Dⁿ. Martin Joseph Marcotegui Abbad electo, y Cura Interino» denak Goñiko *Defuntuen* liburuan, 45 folian idatzi omen duenez (56). Bere aurrekoaren sarrera Markotegik egin badu ere *Defuntuen* liburuan, Ollo idazkariari beste batek bidali dio heriotze aldaera, hots, «Fr. Joseph de Ezcurra, Cura Interino» denak memento horretan. Beraz, une horretan Margotegik ez du kargu hori? 1765eko maiatzaren 24.ean onartua da Markotegi «ad curam animarum» (59). Hurrengo egunean errogeordeak haren alde ematen du boza (64) eta Elizak ematen dio ofizialki parroquia: «a ... Martin Joseph de Marcotegui, Presb^o. Nat^l. de el (= Goñi) le hacemos colacion, y canonica institucion de ella» (=«Abadia dela Ig^a. Parr^{al}. del Lugar de Goñi») (65-66at).

Diogun zerbait izenari buruz, 1766an ¹⁸ «Martin Joseph de Marcotegui» eta «Marttin Josseph de Marcotegui» deitzen zaio ¹⁹, eta 1767an berak «Dⁿ. Martin Joseph de Marcotegui» sinatzen du. 1790ean ²⁰ beti «Dⁿ. Martin Marcotegui» -*Joseph* eta *de gabe-* izenpetzen du. 1796-1797 urteetan ²¹ «Marcotegui Abad de Goñi» eta «D. Martin Marcotegui Abad de Goñi» idazten du hizki lodi zakarrez, eskua ez duela menderatzen erakusten duelarik. 1807an ere ²² «Dⁿ. Martin Marcotegui» egiten du, eta lehen baino hizki lodi zakarra goez. «Dⁿ. Marlin (sic -*I*-) Marcolegui» (sic -*I*-) ere badago urte horretan (62-62at.) ²³. Gogora dezagun bere ilobaren bataio agiria sinatu zuenean 1766an ²⁴ «Dⁿ. Martin Joseph Marcotegui» -*de gabe-* egin zuela, testu barruan *de* erabiltzen badu ere.

16. IEA, id., 463 hh.

17. IEA, Ollo 1693, 22, 1. orr. Hurrengo bi paragrafoetako zenbakiek Ollo 1693, 22 agiri multzora bidaltzen dute.

18. IEA, Almandoz 2027, 12, 1-3at. eta 170at.

19. IEA, id., 21-25.

20. IEA, Navarro 2375, 10, 13at. etab.

21. IEA, Navarro 2408, 22, 3 eta 13.

22. IEA, Navarro 2691, 7, 3 eta 12 eta 66.

23. IEA, id., 62-62at.

24. IEA, Moreno 2471, 10, 178. Ik. 31. oharra.

Oso gaizki aurkitzen dugu 1807-1808 urteetan, 73 urteko delarik. Urte horietan auzitan ikusten dugu bere eliztarrekin. Hauek 1807an diotenez²⁵, «el Parroco no puede cumplir por si con sus obligaciones por su indisposicion de Perlesia y el Beneficiado se las suple». Urte horretan bertan, aurrerago esaten zaigunez «Martin Joseph de Marcotegui ... pasados quarenta años esta exerciendo de cura de Almas» Goñin, 73 urtekoa da eta aurkitzen da «acometido del accidente de perlesia» (57at.), eta beste hau: «y no firma por decir no puede por devilidad (sic) del pulso y mano» (107). Horren antzekoa esaten du 37 urtekoa den «Joseph Ant^o. Ibarrola Presv^o. Abad de la Iglesia Parroquial del lugar de Vrdanoz» denak: «Marcotegui ... se halla constituido en la edad de setenta y tres, y hace seis, esta cometido (sic *co-*) del accidente de perlesia» (97at.). Auzian lekukoaren artean ageri da ere Muñarrizko abad den «Mig^t. Ant^o. Melida», 40 urtekoa (100), Jaitzeko semea.

Auzia 1808an amaitzen da, eta erabakitzen da parrokuak apaiz bat aurkitu behar duela, jaiegunetan «la Misa popular o Parroquial» deitua eman dezan, eta ez badu besterik aurkitzen «concedemos la facultad correspondiente á Dⁿ. Martin Joseph de Marcotegui, Beneficiado dela propia Iglesia» eman dezan bertan bigarren meza behar den orduan eta *limosna* edo sari berdinez (149-149at.).

Martin Joseph 1814ko maiatzaren 26.ean hiltzen da, honako hau idazten baitu Espronceda ikazkariak: «a las dos de la mañana murio Dⁿ. Martin José Marcotegui Presb^o. Abad de este lug^t. de Goñi, y natural del mismo, de edad de ochenta y tres pocos mas, ô menos»²⁶.

1.1.2. Goian esan dugun bezala, 1777 urtean Ollon predikatu zituen tesuak ailegatu zaizkigu. Bost *doctrina* dira, horietan, egileak dioen bezala, konfesio on bat egiteko bete behar diren baldintzak ukituko dituela «garizumaco borz igandetan» (227,1). Lehen hitzaldiko tituluak esaten digunez, sermoiaren aurretik emateko dira: «Doctrinas *para antes del sermón*. Doctrina primera. El Examen» (226). Horrek esan nahi du bost sermoi falta direla, eta gainera *doctrina*-k dauden koadernoaren azalean jakinarezten zaiguna, hots, «Sermón predicado en Ollo el Domingo de Ramos del año de 77 por Marcotegui Lic.» (223). Beraz, sei sermoi falta dira.

Garai haietan predikarien artean baziren, besteak beste, erdaraz *misionista* eta *doctrinero* deitzen zituztenak. Ez ziren gauza bera, hark sermoiak «sermones» egiten baitzituen, eta besteak berriz doktrinak «doctrinas». *Doctrinero*-ak hitz egiten zuen lehenbizi eta haren ondotik *misionista* aritzen zen. Honen gai jasoagoak eta zabalagoak erabiltzen zituen, eta emateko modua gora eta biziagoa zen, azaltzen zituela azkenaldiak, bekatua, dantzak, ohitura edo pentsamentu edo lagun gaiztoak, irainen barkazioa, zenbat zeruratzen diren, otoitza etab. *Doctrinero*-ak kristau-ikasbideko puntu konkretuagoak azaltzen ditu batez ere, kredo edo paternosterra xehatzen dituela, ongi aitortzeko bete behar diren puntuak agertzen dituela, etab.

Lanbide horiek oso zabalduak zeuden aldi haietan. Abididez, Euskalerriko kaputxinoen probintzian -ofizialki Nafarroa eta Kantauria hartzen zitue-

25. IEA, Navarro 2691, 7, 1-1at.

26. IEA, Espronceda, 3010, 22, 13.

na eta bere komentuak Nafarroa eta Gipuzkoan zeuzkana- hiru urte-tik edo nagusiak, lanbideak eta beste aldatu edo berritzen zirenean XVIII eta XIX mendeetan, hautatu ohi ziren *misionista* eta *doctrinero*-ak, noiz-behinka ematen zietela lehenbizikoei *doctrinero* beren laguna aukeratzeko ahalmena. Esagun bidenabar, horietako batzuk *Pais Bascongado* (547, 1, 1795 urtea) edo *pueblos Bascongados* (589, 3, 1801) deituetan lan egiteko zirela, eta beste batzuk *pueblos Castellanos* (589, 3, 1801) izendatuetan²⁷. Gure egunak arte iraun du ohitura horrek, mende honen seigarren hamarkada arte, besteak beste kaputxinoen artean, lehenbizi *platica* botatzen zuela *platiquero*-ak eta honen ondotik sermoi moralak predikatzen zuena aritzen zela. Hau guztia kontuan izanik, bidezkoa da baieztatzea Markotegik dotrinak eman zituela. Falta diren sermoiak beste batek emanak izango ziren, eta horregatik ez zaizkigu ailegatu horiekin batean.

1.1.3. Nongo euskara erabiltzen du? Darabilen euskara Goñerrikoa dela pentsatu behar dugu, Ollarangoa ez dela faltako beharbada. Ez dakigu non egin zituen apaizgorako ikasketak, *Seminario Conciliar* deitua geroago izan baitzen eraikia, Lorentzo Irigoien eta Dutari apezpiku baztandarrak sortua izan zelarik 1777 urtean. Badakigu, ordea, Aizpungo sakristau titulua lortu zuela eta izan zuela bost urtez 1756 urteko abuztutik 1761eko abuztua arte. Ez zen alde handirik izango mugakide diren Goñi eta Aizpun herrietan hitz egiten zen euskara moduan. Urrutiago dago bikario bezala ia lau urtez, 1761eko abuztutik 1765eko maiatza arte, lan egin zuen Zileguesta. Bai Goñin eta bai Zileguetan euskalki bera hitz egiten bazen ere, hots, hegoaldeko goi-nafarrera, alde handi samarra izango zen zerabilten euskara moduan.

Bazeramatzan hamabi urte jaioterriko parrokiari, beraz bertako euskara ongi ezagutu eta horretan mintzatzen zen normalki bere herrian. Ollon 1777an predikatu zuenean, hemengo kutsua ematea erraza gertatuko zitzaion, Goñi herriak Ollaranekin mugatzen baitu eta Goñi eta Ollon artean Ar-teta herria bakarrik baitago. Bestalde, Goñitarrendako Ollon barrena dago biderik laburrena Arakil aldera joateko eta hemengoekin eta urrutiagokoekin harremanak izateko.

Neurri handi batean Goñerriko euskararen moldatuak daudela uste dugun bi testurekin erkatuz, ohartzeko gara testu horietan eta hegoaldeko goi-nafarrean erabili ohi diren zenbait hitz, aldaera etab. Ollokoan ez direla ageri, hala nola *ani(t)z*, *ber(t)ze*, *ebatsi*, *erran*, horien ordezkari *asko*, *beste*, *ostu* eta *esan* azaltzen direla beti. Aditzean “dezu” maizago idazten da “duzu” baino, baina, beti “dut”, “dugu” etab., uste dugunez. Aipatu ditugun testu horiek honako hauek dira: «Textos ... en el pueblo de Goñi»²⁸, eta Juan Martin de Iberorenak²⁹.

Hiru zutabetan ipintzen ditugu Ollon 1777an, Juan Martin de Iberok 1755etik 1774a arte Izun idatzi eta predikatu sermoietan eta Goñi herriko ebanjelio itzulpenetan, hauek ere XVIII mendekoak, ikusten ditugun zenbait hitz, horien bitartez fonetikan eta morfologian batez ere ematen diren gertakariak erakusteko. Iberoren eta Goñiko testuen zenbatzea eskuidatzikoa da.

27. Kaputxinoen Probintzia Artxiboa, *Batzarren Liburu/Libro de Capítulos* (1655-1838).

28. Ik. 1. oharra.

29. Frantzisko ONDARRA. «Juan Martin de Ibero (1729-1783), Izuko parroquia (1754-1783)». *FLV*, 72 (1996), 235-267.

<i>Olo 1777</i>	<i>Ibero 1755-1774</i>	<i>Goñi XVIII</i>
aguirtu 231, 3, 4	aguirtu 14, 2	aguircen 2, 2
arquitu 227, 2, 14 (ez da ageri)	arquitu, 1, 3(ia beti)	(ez da ageri)
arrec 227, 2, 19	arquinçen 6, 1 (behin)	arquincen 2, 2
asco 232, 1, 8	arrec 1, 2	arrec 3, 2
bague (gabe) 228, 2, 13 (233, 1, 7)	aniz (asco) ³⁰ 1, 6 (4, 6)	aniz 3, 2
becatari 226, 7, 1 (ez da ageri)	bague (gabe) 1, 2 (7, 1)	(ez da ageri)
biurzen 235, 1, 4 (ik. ostu)	becatari 16, 1 (bi aldiz)	(ez da ageri)
guenduco 241, 3, 5	becatore 1, 1 (ia beti)	becatore 1, 2
gusti (guci) 238, 2, 8 (gucia 238, 2, 15)	(ik. içuli)	(ik. izuli)
iduqui 231, 3, 2	ebatsi 6, 5	evasizaleac 1, 1
iche 229, 2, 1	equendu 8, 1	(ez de ageri)
izan/izandu 227, 2, 5 /227, 2, 11	guci (guici) 1, 2 (9, 8)	guciec 2, 2
izuli 238, 2, 14	idugui (iduqui) 7, 3 (iduquece, 10, 2)	igui/irigui 1, 2/3, 2
Jangoico 232, 2, 1	eche, 3, 6	ichera 1, 2
lapurquerian 237, 3, 9	iken/izen passim / ikendu passim	izen/izendu 1, 2/3, 2
muguitu 238, 2, 11	içuli 2, 3	izulcen 3, 2
ostuzen 231, 2, 5	Jangoico, 4, 8	Jangoicoo (sic) 1, 2
ure 'hura' 227, 2, 14	ladronqueriec 4, 6	(ik. evasizaleac)
dezu (duzu) 231, 2, 1 (242, 3)	moguitu 16, 4	muguitu 3, 2
	(ik. ebatsi)	(ik. evasizaleac)
	ore (ure) 32, 2 (4, 3). Bakan-bakan «ure»	ure/ore 3, 2/3, 2
	duzu 2, 6	duzu 3, 2

Oharra. Ergatibo plurala *-ak* da, behin izan ezik, Olloko testuetan; *-ek*, behin (?) izan ezik, Iberoren idatzietan; eta *-ak*, Goñi herrikoetan.

orlacoac 237, 3, 13h.; baina *semec* 239, 2, 11 *jabeec* 3, 7; baina *oñeceac* 6, 1 *sorrac* 2, 2

1.2. Marcotegi iloba

1.2.1 Goñi herrian jaio zen 1766 urteko uztailaren 9.ean «Martin Joseph Marcotegui», bataio agiriak dioenez. Gurasoak «Francisco Martin de Marcotegui» eta «Martina Arteta» izan ziren; aitaren aldetiko aitajaun-amandreak, «Martin de Marcotegui» eta «Maria Miguel Beraza» «Elcoyena» etxearen jabeak; amaren aldetiko aitajaun-amandreak, «Juan de Arteta» eta «Juana Maria Oroquieta», Domingorena etxearen jabeak; aitapontekoa «Dⁿ. Martin Joseph de Marcotegui», Goñiko parrokoa, eta amapontekoa «Josepha

30. Parentesian ipintzen dugun hitz edo aldaera askoz urriagoa da bestea baino, zenbait aldiz salbuespen hutsa dela.

Arteta»; bataiatzailea, «Dⁿ. Francisco Antonio Asiain». Hona hemen bataio agiria:

«El dia nuebe de julio del año de mil setecientos sesenta, y seis nacio, y en el dia diez del mismo mes baptice solemnemente a Martin Joseph Marcotegui hijo Legitimo de Francisco Martin de Marcotegui, y Martina de Arteta yo el Presbitero infrascripto con licencia del Señor Abad de este lugar de Goñi, fueron Padrinos Dⁿ. Martin Joseph de Marcotegui, y Josepha Arteta, les adverti el parentesco espiritual, y lo demas que dispone el Ritual R[omano] Abuelos Paternos Martin de Marcotegui y Maria Miguel Beraza, Maternos Juan de Arteta y Juana Maria Oroquieta y por la verdad firmamos dicho mes y año ut supra.

Dⁿ. Francisco Antonio Assiain

Dⁿ. Martin Joseph Marcotegui Abad de Goñi» ³¹.

Sendotza 1772 urteko abuztuaren 7.ean hartu zuen ³². Tontsuradun 1781.12.21.ean egin zen ³³; ordena txikidun, 1787. 09.21.ean ³⁴; subdiakono, 1790.03.20.ean ³⁵; diakono, 1790.09.18.ean ³⁶; eta apaiz, 1791.04.09.ean ³⁷.

Ordena txikidun delarik eta apaizgorako bidean abiatu rik dagoelarik, Ollarango Saldise herriko parrokian sortu berria den sakristau titulua ematen diote 1785.11.28.ean «dⁿ. Martin Josef de Marcotegui» ri, bertako parroku eta herritarrek izendatu eta aurkezturik, bera dela lehenbiziko sakristaua ³⁸. Apaiz bilakatu eta berehala, 1791.04.20.ean Goñiko benefiziatu bihurtzen da «dⁿ. Martin Josef Marcotegui» ³⁹.

Saldiseko sakristau titulua duelarik eta horrek ematen dion irabazia nahikoa ez delarik apaizgora ailegatu ahal izateko, bere aita eta anaia diren «Martin Francisco» eta «Juaquin de Marcotegui» k ematen dizkiote etxe bat, zenbait alor edo soro eta borda eta txabola bat «Andia» eta «vrbassa» medietako mugan zenbait baldintzarekin: «en la muga de los montes reales de Andia y vrbassa». Horiekin 49 dukat lortuko ditu errenta gisa, eta guztira 90 dukat gutxi gorabehera izango ditu urtean sakristautzak dakarren errentarekin. 1788.02.13.ean gertatzen da hori ⁴⁰. Hurrengo urteko abenduaren 22.ean egindako agiri batean esaten denez, aitik eta anaiak emandako ondasun horiek 40 dukat errendituko dute, «Martin Joseph de Marcotegui» k Goñiko parrokian egingo du lan, 20 urtekoa da -1789.12.22.ean-, lau urtez *Theolo-*

31. GEA, *Bataiatuen 2. Liburua*, 102. José Luis Vera Arrechea parrokuak bidali digun bezala kopian dugu. IEA, Moreno 2741, 10, 178.ean ere badago, baina bataiatzailearen izena, hots, «Dⁿ. Francisco Antonio Assiain» ez dute aldatu. Gainera zenbait gauza erantsi dituzte: «dueños dela casa vecinal llamada Elcoyena» eta «dueños dela casa de Domingorena y vecinos de este Lugar». Moreno-renean ikusten dugu ere «Bautice», «el Presbytero Infra=scripto», «Josepha de Arteta» etab. Aldaera hau 1790.07.22.ean aurkezten dute (117at.), urte horretakoa da.

32. GEA, parrokuak gutunez 1996.04.11.ean jakinarazia.

33. IEA, *Matrikulen Liburuak*, Lezo eta Palomeque, 54 hh.

34. IEA, id., Aguado, 49at.

35. IEA, id., 123at.-125.

36. IEA, id., 140-141at.

37. IEA, id., 155at.-156at.

38. IEA, *Tituluen Liburuak*, 74, 260-261at.

39. IEA, id., 14, 17-17at.

40. IEA, Navarro 2375, 10, 3-4at.

gia Escolastica estudiatu du eta data horretan *Moral* ari da ikasten *Seminario Conciliar*-ean ⁴¹.

Jaioterriko benefiziari egiten dute 1791.04.20.ean, eta 1814.02.07.a arte irauten du titulu horrekin, denbora guzti horretan Goñin duela bizilekua. Bigarren data horretan Goñerrin dagoen Azantza herriko parroku izendatzen dute «dⁿ. Martin Josef de Marquotegui» ⁴², «Dⁿ. Francisco Miguel Perez de Azanza», aurreko parrokoa, 1813.04.22.ean hil delarik ⁴³. Azantzako parrokiako *Bataiatuen* 1. liburua aztertu dugu eta 1814.03.09.etik 1833.06.05.a arte -liburuko azken sarrera- ageri da «Dⁿ. Martin Josef de Marcotegui» ⁴⁴. Ez dugu ikuskatu 2. Liburua, baina hor ere ageri behar luke, urte horretako urria arte ez baitzen erretiratu Azantzatik Goñira, Testamentuaren berri ematen dugunean esaten dugunez.

Heriotzak 1843.06.26.ean beste munduratu zuen ⁴⁵, testamentua egin eta sei egunetara, azken nahia 1843.06.20.ean egin baitzuen Goñin «Dⁿ. Martin Jose de Marcotegui Previstero Abad de la Parroquial del Lugar de Azanza» zenak, beste testamentu guztiak idargabetu eta ezeztaturik (1. orr.) ⁴⁶. Lurpera dezatela «en la Parroquial de este pueblo (=Goñi) ⁴⁷, y sepultura destinada para los Señores Abades» eskatzen du (2. zenbakia). Azantzako «Guembearena» etxeokoe zorretan daude berarekin, eta jaitzen ere badu zordunik, hemengo etxe bateko jabeei 300 dukat aurreratu baitzizkien 1814 urtean (6. zenb.) ⁴⁸. Goñiko «Juamercerena» etxeak ere badu zorrik eta zor hau uzten du «en favor de Juan Miguel Marcotegui su sobrino dueño actual de su casa nativa de Elcoyengua» (8. zenb.).

Datorren urrian -1843 urteko urrian- dira hamar urte «que no pudiendo atender el servicio de la Parroquia de Azanza, de que es Abad, por su abanzada edad y achaques que padecia, se retiró á la casa y compañía de Dⁿ. Felipe Gulina su sobrino Abad actual de este Pueblo» (=Goñi) (9. zenb.). Berriz ere aipatzen da «Elcoyengua» bere jaiotetxea 12 eta 15 zenbakietan.

Bere biblioteca osoa ematen dio «al Abad actual de este Pueblo», eta hau hiltzen delarik, parrokiari ondorengo izango ditueni, baina baldintza honekin, hots, Elcoyengua jaiotetxekoren batek «la carrera Eclesiastica ú otra cualquiera» jarraitu nahi badu, eman behar dizkiote egin nahi dituen ikasketei dagozkien liburuak (15. zenb.).

Testamentu betetzailerik izendatzen ditu «D. Francisco Olló» ... Abad *interino* de Azanza» eta «D. Pedro Azcarate que lo es del de Vrdanoz», eta ordeko edo *sobrecabazalero* «al Abad actual de este Pueblo». Markotegik ez du izenpetzen «por impedirselo su grave enfermedad y cortedad de vista» (23. zenb.).

Beraz, Goñin izan da lurperatua eta ez Azantzari. Eta Azantzako parroku hil zen eguna arte izan da, azkeneko hamar urteetan ordekoa edo *interino*-a

41. IEA, id., 2-2at.

42. Hiru aldiz «Marquotegui» eta behin «Marcotegui» testuan, eta beste behin «Marcotegui» testuaren aurretiko laburpenean.

43. IEA, *Tituluen Liburuak*, 33, 33-35.

44. GEA, *Bataiatuen 1. Liburua*, passim.

45. GEA, parrokuak gutunez 1996.04.11.ean.

46. IEA, 389, 15.1. orr.

47. Gogora dezagun testamentu agiria Goñin izan dela egina; beraz «este pueblo» Goñi da. Sin-tagma hori errepikatzen da 9 eta 23 zenbakietan.

48. IEA, 389, 15. Jaitzeko arazoa eta testamentua multzo berean daude.

izan duela Azantzan: D. Francisco Ollo. Bestalde, bere deiturak Markotegi Arteta dira eta ez Markotegi Guridi⁴⁹.

Izenari dagokionez, jaso dugun aldietan honela ageri da. Hamarrenei buruzko auzi luze batean⁵⁰, besteak beste, osaba eta iloba ageri dira apaizen aldetik, eta bigarrenak 1803.03.11.ean «Dⁿ. Martin Joseph de Marcotegui» sinatzen du (203); 1803.04.08.ean, berriz, «Dⁿ. Martin Joseph Marcotegui» izenpetzen du (247). 1811 urtean «Dⁿ. Martin Joseph de Marcotegui Beneficiado Coadjutor de Goñi» ikusten dugu⁵¹. Azantzako parroku dela, parrokiako bataiatuen liburuan «D Martin Joseph de Marcotegui» idazten du 1814.03.09.etik 1833a arte⁵². Azken testamentua egiten duela 1843 urtean, ezindurik dagoelako ez du sinatzen, baina testamentu moldatzaileak «Dⁿ. Martin Jose de Marcotegui» ezartzen du, *de* preposizioa erabiltzen duela. Esan genezake osabak baino maizago darabilela *de* partikula.

1.2.2. Ezaguna de Aralarko S. Migelez idatzi eta argitaratu zuen liburua, izen honekin:

«*Compendio de la Historia de la aparición de San Miguel de Excelsis, y de su antiquísimo Santuario en el Monte de Aralar, jurisdicción de la villa de Hugarte Araquil, en el Reino de Navarra*, Iruñea: F. Erasun eta Rada, 1828».

Erants dezagun lan horren eskuidatzia azken urte hauetan aurkitu eta ongi gordea dagoela, hango parrokuak jakinarazi digunez.

Guk *FLV*-en ezagutarazi genituen ebanjelio zatien itzulpenen egilearen bila ari ginela, lehen ikustaldi batean pentsatu genuen Markotegi iloba izan zitekeela itzultzailea. Baina gero berriz ikusirik, zalantza handiak etorri zitzaizkigun. Batetik, ohartu ginen euskal testuetan bi aldiz zedila erabiltzen dela, eta erdarazkoetan ez dela erabiltzen, beraz haiek eta haien autorea zaharrragoak izan behar dutela edo. Bestetik, idazkera ezin dugu esan berdina dela Markotegik erabiltzen duenarekin. Esate baterako, ixa desberdina da beti, etab. Astiroago aztertu behar dira Goñerriko parrokiako liburuak, ea egilea aurkitzen dugun, baina guk ez dugu erraztasunik horretarako.

2. LOZEN, MARTIN ETA ARMENDARITZ

Markotegi osaba-iloben garaikide izan ziren Olloko parrokuen berri ematen dugu orain.

2.1. Ollon 1777 urtean doktrinak eman zirenean, Manuel de Lozen bertako semea zen parrokoa. 1728.04.20.ean izan zen bataiatua, izentzat Manuel ipini ziotela⁵³. Karlosena etxeko semea zen⁵⁴.

Tontsuradun 1755.02.21/22 egunetan izan ziren *Ordenes Generales* deituetan egin zen «dⁿ. Martin (sic, ez *Manuel*) de Lozen»⁵⁵, gurasoak Juan eta

49. *GEN*, VII, 223. orr.: «Marcotegui Guridi».

50. IEA, Navarro 2718, 17, 203 eta 247.

51. GEA, *Bataiatuen 1. Liburua*, 185.

52. AEA (Azantzako Eliza Artxiboa), *Bataiatuen 1. Liburua*, passim.

53. OEA (Olloko Eliza Artxiboa), *Bataiatuen 1. Liburua*, 99. Parrokuak gutunez jakinarazia.

54. IEA, Villava 2205, 26, 26-27at.

55. IEA, *Matrikulen Liburuak*, Miranda eta Argaiz-en 2.a, 178-178at. Baina *Bataiatuen 1. Liburuan* 99. orr., eta *Matrikulen Liburuan*, Miranda eta Argaiz-en 3.a, beti *Manuel* ageri da hurrengo ordenak hartzean.

Maria Juana de Sarasate «vecinos de Ollo» zirela. Ordena txikiak 1761.09.11. ean hartu zituen ⁵⁶; subdiakono 1761.12.11.ean egin zen ⁵⁷; diakono, 1762.02.24.ean ⁵⁸; apaiz, 1762.09.08.ean ⁵⁹.

Lehen lan tokia Aizoain da, Antsoain zendeako herria. «Dⁿ. Miguel de Al-daba» hil delarik, Aizoaingo bikariotza hutsik dago, eta «Don Manuel de Lozen ... Thonsurado» (sic *Th-*) dena izendatzen dute 1761.08.13.ean kargu horretarako ⁶⁰.

Ollo da bigarren lan lekua. «Dⁿ. Pedro de Ollo» Olloko parrokoa 1765.01.26.ean hil delarik ⁶¹, «Dⁿ. Manuel de Lozen»en alde bozkaten du-tu etxe-jabeek (4-31at. eta 34-35at.), alargundurik dagoen «Juan de Lozen» bere aita, «Martin Joseph de Vrbe» eta «Juana Maria de Arraras» honen emaz-tearekin Karlosena etxearen jabe dena, horien artean ageri dela. 26-27at. orrialdeetan dagoen agiri honetan esaten da «hijo de dho Juan de Lozen» de-la «Manuel de Lozen» hautagaia.

Elizak urte bereko martxoaren 27.ean Olloko parroku izateko *ad curam animarum* aztertu eta onartzen du (50). Erregeordeak haren alde bozkaten du egun horretan bertan (53), eta Elizak ofizialki adjudikatzen dio abadetza hurrengo egunean, martxoaren 28.ean (56-56-at.). Apirilaren 9.ean hartzen du sinbolikoki parrokia, atariak eta leihoak zabaldu eta itxiz etab. ⁶², eta egiazko kargu hartzea hilabetearen 22.ean gertatzen da ⁶³. «Dⁿ. Manuel de Lozen» 1810.06.25.ean hiltzen da bere herriko parroku delarik ⁶⁴.

Izenari buruz zerbait esan nahi dugu. Behin hartu dugu bere sinadura eta «Manuel *de* Lozen» egin du ⁶⁵. «Juan Antonio Irissarri» eskribauak, Olloko semea denak eta bertako bi etxeren jabeak ere, *de* erabiltzen du, adibidez, hau-tesleen bozaren berri ematen duten agiritan ⁶⁶. Parrokian haren ondokoa izan zen Miguel Antonio Armendaritzek gauza bera egiten du bere aurreko-aren hil agirian ⁶⁷. Elizako kargudunek eta erregeordeak, berriz, ez dute *de* erabiltzen, salbuespen gisa ezpada.

2.2. «Dⁿ. Fernando Martin» ageri da Olloko parrokan *interino* gisa, Pe-dro de Ollo, Manuel de Lozen-en aurreko parrokoa hil delarik. Parrokirako hautagaiak aurkez zitezen *edicto*-a zabaldu zenean, berak irakurri zuen Ollon mezakoan eta zera baieztatzen du: «Certifico ... aver dado en *lengua vul-gar* â entender a los feligreses de dho lugar de Ollo» haren edukia 1765.03.03.ean ⁶⁸. «Dⁿ. Fernando Martin» Senosiaingo bikarioa da, 1757.12.14.ean izendatu eta auskeztua eta honako hau esaten zaigu: «Dⁿ. Fernando Martin tonsurado natural de la Villa de Roncal y residente en esta dha Ciudad (=Iruñea)» ⁶⁹. Honek azaldu du euskaraz agiriaren edukia, Erron-kari herriko seme denak eta tontsuradun bilakatu zenean Iruñean bizi zenak.

56. IEA, id., Miranda eta Argai-en 3.a, 20at.-22.

57. IEA, id., 28-30at.

58. IEA, id., 34-36.

59. IEA; id., 44at.-55.

60. IEA, *Tituluen Liburuak*, 8, 444-445at.

61. IEA, Villava 2205, 26, 33at. Paragrafo honetan eta hurrengoan parentesi barruan dauden zen-bakiek Villava 2205, 26 agiri multzora bidaltzen dute.

62. IEA, Errazu 2934, 5, 6at.

63. OEA, *Parrokiako Kontuak*, 1. zenb., 191. orr. Parrokuak gutunez.

64. IEA, Errazu 2934, 5, 4. Ik. ere OEA, *Zenduen 2. Liburuak*, 19. Parrokuak gutunez.

65. IEA, Errazu 2934, 6, 6at.

66. IEA, Villava 2205, 26, 4-31at. eta 34-35at.

67. IEA, Errazu 2934, 5, 4. orr.

68. IEA, Villava 2205, 26, 33at.

69. IEA, *Tituluen Liburuak*, 8, 256-257at.

2.3. Migel Antonio Armendaritz Atarrabian jaioa da, 1800.06.06.ean Iruñean tontsuradun egin zenean esaten zaigunez: «Dⁿ. Miguel Antonio Armendariz natural dela villa de Villaba (sic) ... hijo legitimo de Juan Miguel, y Maria Josefa Salinas»⁷⁰. «Miguel Antonio de Armendariz»en gurasoak «Juan Miguel de Armendariz natural de Tajonar» eta «Maria Josepha de Salinas natural de Badostain» dira, eta bera 1779.09.19.ean jaio zen. Hona hemen bataio agiria:

«El dia diez y nueve de septiembre de mil setezientos setenta y nueve nació â las nueve y media de la noche y el veinte y vno del mismo mes, y año bautizè yo el infras[crip]to vicario â Miguel Antonio de Armendariz hijo legitimo de Juan Miguel de Armendariz natural de Tajonar, y de Maria Josepha de Salinas natural de Badostain residentes en esta villa: Abuelos Paternos Pasqual de Armendariz natural de dho lugar de Tajonar, y Manuela de Peña natural de Berriozar: Maternos Juan Miguel de Salinas natural de Galduroz, y Juliana de Olaz, natural de Subiza: Fuè su Padrino Miguel Antonio de Adansa vezino de esta dha villa a quien adverti lo necesario y firmè dho dia, mes, y año, ut supra.

Dⁿ. Joachin de Eguzquiza (errubrika) vicario»⁷¹.

Ordena txikidun 1807.03.13.ean egin zen eta «natural (sic) de Villava y Beneficiado de Ollo» omen da⁷²; subdiakono, 1807.03.14.ean eta «natural de Villava» omen⁷³; diakono, 1807.05.23.ean⁷⁴; apaiz, 1807.09.19.ean⁷⁵.

Oloko benefiziatu 1807.02.04.ean bihurtzean da, bere aurrekoa zen Manuel Josef de Lozen-ek utzi egin duelako: «por desistimiento», Orreagako kallonje izendatua izan delarik⁷⁶. Oloko parroktzara ailegatzen da «Dⁿ. Miguel Antonio de Armendariz», «Dⁿ. Manuel Locen», goian esan bezala, 1801.06.25.ean hilik⁷⁷. 1825.03.08.ean Oloko parrokia hutsik dago, «Dⁿ. Migual Antonio Armendariz» Atarrabian daukan *beneficio*-ra aldatu delako: «por traslacion à ... Villa**ba**» (sic)⁷⁸. Hemendik aurrera ezin izan dugu ezer aurkitu berari buruz.

3. OLLO, GOÑI ETA AZANTZA

Ollo, Goñi eta Azantzako parrokuak izan ziren lan honetan tratatu ditugunak. Herri horiei buruz zenbait zertzelada ematen ditugu orain, horrela

70. IEA, *Matrikulen Liburuak*, Igual de Soria, 178.

71. Atarrabia/Villavako Eliza Artxiboa, *Bataiatuen 3. Liburua*.

72. IEA, *Matrikulen Liburuak*, Arias eta Teixeira, 80at.-82.

73. IEA, id., 83-83at.

74. IEA, id., 90-92.

75. IEA, id., 97at.-99.

76. IEA, *Tituluen Liburuak*, 31, 182-184. Hemen «Manuel Lozen» dio, baina *Tituluen Liburuak*, 30, 57at.-59at., beti «Manuel Josef de Lozen», *Josef* eta *de* erantsiz eta *-c-* erabiliz. *Beneficio* titulua 1802.01.29.ean lortu zuen Manuel Josef-ek, lehen bi *beneficio* zirenak bat egiten zirela data horretan. Horietako lehenengoa hutsik gelditu zen «Dⁿ. Joaquin de Lizarazu», Iruñeko S. Juan Bautista-ko «Presvitero (sic -v-) corista» 1786-10.06.ean hilik; bestea «Dⁿ. Pedro Juan de Sagues» 1801.09.07.ean zendurik. Sagues izan zen Juan Martin de Ibero, Munarrizko semeak eta Izuko parroku eta euskal idazleak bere bigarren *cabezalero* izendatu zuena testamentuan. Ik. Nafarroako Artxibo Nagusia, Protokoloen atala, Migual Antonio Belza 2242 karpeta, 81 zenb.; eta «Juan Martin de Ibero (1729-1783), Izuko parroku (1754-1783)», *FLV*, 72 (1996), 235-267.

77. IEA, *Tituluen Liburuak*, 19, 242at.-244at.

78. IEA, *Tituluen Liburuak*, 76, 70at.-72.

gure apaizok nolako giroan etab. bizi izan ziren eta lan egin zuten kontura ahal gaitezen. Anotz, Arteta, Beasoain, Egillor, Iltzarbe, Olló, Saldise, Senosiain eta Ultzurrun-ek Ollaran deritzan haran edo ibarra osatzen dute, udaletxea Ollon kokaturik dagoela; Goñerrik, berriz, bost herri ditu, hots, Aizpun, Azantza, Goñi, Munarritz eta Urdaotz, udaletxea Goñin aurkitzen dela.

3.1. Ollók 1790 urtean 35 familia ditu, 145 *personas de comunión*, parroquia eliza bat, parroku bat, bi *beneficio* eta herriaren mugen barruan bada-go Donamaria (sic orijinalean) deritzan eta Iratxe ko monastegiarena den *Abadia rural* bat ⁷⁹. 1802an 128 pertsona ditu 37 etxetan, parroquia, sakristaua eta *beneficio* bat, parroquia eliza Santo Tomas Apostoluarena dela eta bere zerbitzuan parroquia, benefiziata eta sakristaua daudela. Gari-errota ere badu herriak ⁸⁰. 1757an 205 lagun bizi dira⁸¹; 1986an, 66/71 ⁸². «Pedro Joseph de Larumbe hermitaño de Olló» lekuko bezala ageri da 1765eko martxoaren 15.ean, Markotegi zaharrak prokuradoreari bere ahalmena ematen dion agirian ⁸³.

Euskararen alorrean sartzan garelá, badakigu 1929 urtean bazeudela euskaldunak herrian, hasieran aitatu dugun lanean, Blas Fagoagari jarraituz, esan dugun bezala ⁸⁴.

1790 urtean *Plan Beneficial* delakoa egin zenean, erabaki hau hartu zen: «Que finalmente las Abadías, Vicarias y Beneficios comprendidos en este valle de Olló deberan recaer en quien posea el *idioma bascongado* por ser el que como natural, usan sus habitantes» ⁸⁵.

1765.03.03.ean, goian ipini duguna errepikatuz, zera dio Senosiaingo bikarioak: «Certifico ... aver dado *en lengua vulgar* â entender a los Feligreses de dho Lugar de Olló» irakurri duen erdarazko testuaren edukia ⁸⁶. Urte horretan parroquia izendatzeko egin den hautaketan 28 etxe izen ageri dira, horietako bi erdarara itzulirik ematen direla. Hautesle batek Iruñean eman du boza, beste batek Lizarran, bik Senosiainen eta beste guztiek Ollon. Azken biotakoek «Juan Antonio de Irrissarri», Olloko semea eta bertako bi etxeren jabea den eskribauaren aurrean egin dute hautaketa agiria. Etxe izenak -kontuan izan etxe batek bi izen dituela: «Gainzarena o Arozarena»- eta horien jabeenak ikus ditzakegu, Ollon 1777 urtearen inguruan nolako euskal giroa zegoen ezagutzeko. Izen guztiak orijinaletan dagoen grafia edo idazkera aldatu gabe, haietan ageri diren bezala, ematen ditugu ⁸⁷. Hona heman etxeen eta jabeen izenak:

1. *cassa Palacio de Cabo de Armeria*, euskaraz '*Jauregia*' noski, horren jabea Francisco Ignacio de Gainza dela. Iruñeko *vecino* da eta Olloko beste zenbait etxeren jabea ere bada: «otras cassas vecinales».

79. IEA, Errazu 2934, 5, 16-21.

80. Real Academia de la Historia, *Diccionario Geográfico-Histórico de España ...* Sección I. Comprende el Reyno de Navarra, Señorío de Vizcaya, y Provincias de Álava y Guipúzcoa. I liburukia, Madrid MDCCCII: ik. 393.

81. Comisión de Estadística General del Reino. *Nomenclátor de los pueblos de España*. Madrid 1858. Dakartzan datuak 1857 urtekoak dira.

82. *GEN*, VIII, s. u.

83. IEA, Olló 1693, 22. 2. orr.

84. *Textos*, 117 h.

85. IEA, Errazu, 2934, 5, 20.

86. IEA, Villava 2205, 26, 33at.

87. IEA, id., 4-31at. eta 34-35at.

2. *Loperena*, eta jabeak Joseph de Yerabide ⁸⁸, Barbara de Insaustiren alarguna, eta Joseph de Ochotorena, haren semeordea.

3/4. *Errotacoa* eta *Domingorena*, eta jabea Maria de Vidaurre.

5. *Aizcorberena*: Maria Cathalina de Ollo, alarguna.

6. la del *Cauallero*, '*Zaldunarena*' edo: Francisca Senar, *Dⁿ*. Martin Joseph Diez de Vzurrunen alarguna. Beste jabeek ez daramate *Dⁿ*. hori.

7/8. *escribaberena* (sic) ⁸⁹ eta *Garchorena*: Juan Antonio de Irissarri, erret eskribaua eta Olloko *vecino* dena.

9. *Amezquettarena*: Juan Francisco Sottes y Amezquetta, Lizarrako *vecino* dena.

10. *Iturricoa*: Thomas de echalecu, alarguna, eta Maria Juan de Arrachea, bere alabaordea.

11. *Thomasena*: Juan Miguel de Ibañez, Miria (sic -r-) Juan de Gainzaren senarra bezala, biak dira jabeak.

12. *errochena*: Sancho de Larumbe, Cathalina de Azanzaren senarra bezala, biak dira jabeak.

13/14. *Gainzarena* \hat{d} *Arozarena*: Pedro Juan de Gainza.

15. *Juilena* (sic *Juil-*): Juan Manuel de Vrra.

16. *Irigoien*: Juan de Muru.

17. *Echeuerricoa*: Martin J[ose]ph de Arraiza.

18. *Azanzarena*: Miguel Phelipe de Saldise.

19. *Ezaurrarena*: Gabriel Fernandez de Mendibil.

20/21. *Arguiñarena* eta *Constazarrena* (sic -rr-): Miguel de Arrechea.

22/23. *Gorriarena* eta *Biorbururena*: Juan Ignazio de Legarra.

24. *Sastrezarrarena*: Juan Martin de Anso.

25. *Carlosena*: Juan de Lozen, alarguna, Martin Joseph de Vrbe eta Juana Maria de Arraras bere emaztea.

26. *barberarena*: Maria Angela de Murugarren y Viguria, alarguna, Senosiainen bizi dena edo *vecina*.

27. *Gaiteroarena*: Agustin de Sagues, Senosiaingoa eta hemengo Martiarena etxearen jabea.

28. *quisusquillerena*: Juan Franzisco de Aldaz.

3.2. Goñik 1771 urtean 33 *vecinos*, y *havitantes* ditu eta horietan bizi dira 111 *Personas de Comunión*, umeak ez direla aipatzen ⁹⁰. 1787an parrokia eliza bat dauka eta *San Quiriaco* martiriari eskainia dago, parrokuak, sei benefiziatuk eta sakristauak zerbitzatzen dutela bertan, eta 140 *personas de comunión en treinta y tres vecinos*, y *moradores* eta gainera *Santa Quiteriaren* basiliza. Sakristauaren errenta gutxi gorabehera 600 errealekoa da ⁹¹. 1802an *S. Ciriacoren* parrokia du, parrokuak eta benefiziatu batek zerbitzatua, 189 lagun eta hiru basiliza: *S. Esteban*, *santa Quiteria* eta *S. Miguel* en basilizak ⁹² 1807an sortu auzian, Markotegi zaharraren aldeko lekuko batek dioenez ⁹³, Goñik 150 bat *personas de comunión* ditu (91 at.) eta 20 edo 30 bat de *sola*

88. Horrela idazten dugu, hots, *Y*-grekoz, baina hitz hasieran *Y*-grekoa eta *I*-latinoa berdín egin ohi ziren garai haietan.

89. Lerro bukaeran *escriba-* eta hurrengo lerroaren hasieran *berena*.

90. IEA, Moreno 2741, 10, 112at.

91. IEA, Navarro 2691, 7, 25at.-26.

92. *Diccionario*, I liburukia, s. u.

93. IEA, Navarro 2691, 7.

confesion (ib.); beste baten arabera (92at.) 150 bat eta 40 edo; eta hirugarren batek dio 30 *fuegos* gutxi gorabehera daudela, eta horietan 150 bat *de comun* (95). 1857an 224 biztanle ditu ⁹⁴ eta 1986an, 51 ⁹⁵.

Euskal giroaz zerbait esanen dugu orain. Badakigu 1904 urtean bazegoela euskaldunik Goñin ⁹⁶. Bonapartek 1863-1869 urteetan moldaturiko mapan Goñin bizi-bizia dago euskara ⁹⁷, eta 1869an horko euskaran ematen du *Le cantique ...* ⁹⁸. XIX mendeko seigarren hamarkadan bertan bildutako hitz eta adizki asko etab. utzi zituen Printzeak ⁹⁹.

1807 urteko auzian, gorago atal honetan aipatu dugunean, lekuko en asuntzoaz ari dela, *Pueblo Bascongado* da Goñi, honela esten zaigunez: «Este negocio de *Pueblo Bascongado* cometto à Fermin de Lattur Receptor del Tribunal y lo nombro para la recepcion de sus Pruebas de fuera de estta ciudad respecto de tocar le por turno». Iruñea 1807.09.09.ean ¹⁰⁰.

Auzian urte horretako irailaren 11, 12 eta 14.ean 18 lekuko azaltzen dira (4 hh.) Goñin eta 2 Azantzan Markotegi osabaren kontra. Horien artean badira Gipuzkoako ikazkinak eta Tafallako artzainak, eskola maisuak ez dira falta. «Martin de Azpilcueta» -berak «Martin Azpilcueta» izenpetzen du, Goñiko *Maestro de Primeras Letras* da (68at.) eta «Basilio Fernandez Barrena», Galdeanoko semea eta Munarritzen bizi dena, *Maestro de primeras Letras de el* (= Munarritz) da (84at.).

Gogora ditzagun Fermin de Latùr edo Lattùr -berak bietara idazten ohi du- euskal *receptor*-a denaren aurrean aurkezten diren Tafallako artzainak, eta ez dezagun ahantz parrokuak bi meza emateko duen eginbeharra betetzen ez duelako ari dirala bere aurka hitz egiten. Honako hauek dira:

1. Francisco Mezquiriz, 26 urtekoa. Hiru urte hauetan -eta lehenago beste batean- etorri da *Andia y Vrvasa*-ra eta lo egiten du Goñiko bordetan. Tafallakoa den Juan Francisco Hugarte-ren ganaduekin etortzen da (71).

2. Juan de Ezquiroz, ezkongabea, 24 urtekoa. Sei urte hauetan etorri da bere osaba den -eta hau ere Tafallakoa- Juan Josef Mezquiriz-en ganaduekin *Vrvasa y Andia*-ra, eta osaba eta biak hark Goñiko mugetan dituen bordetako batean ematen dute gaua (72).

3. Josef Bello, 37 urtekoa. Bost urte hauetan etorri da bere ganaduekin *Andia y Vrvasa*-ra, eta aurten Goñiko borda batean lo egiten du (73-73at.).

4. Joseph Elizondo, ezkongabea, 22 urtekoa. Hiru urtez etorri da *Andia y Vrvasa*-ra bere ganaduekin eta Goñiko borda batean lo egiten du. Aurten etorri da, eta duela sei urte beste bi urtez izan zen (74at.-75).

Gipuzkoatik etorriak Beasain eta Lazkaokoak dira, eta, besteak beste, Erna mendian ari dira ikazkintzan (78-80at.).

1802 urteko hamarrenez ari direla, aipatzen dituzte «los corderos, cabritos, y *cherris*» ¹⁰¹. Erants dezagun hemen 1804 urteko hamarrenetan lehenengoz ageri dela *Patatas* sarrera (111), fruitu berria garai hartan: «se advierte,

94. *Nomenclátor*, 224.

95. *GEN*, V, s. u.

96. *Textos*, 117.

97. *Textos*, 118.

98. *Textos*, 118.

99. *Textos*, 118.

100. IEA, Navarra 2691, 7, 53.

101. IEA, id., 109.

que Francisco Dubroc menor hizo el año de mil ochocientos, y vno Diezmo, y primicia de *patatas*, fruto nuevo en estas tierras» (110at.).

Ekar ditzagun gogora Goñikotzat eman genituen ebanjelio itzulpenak, bertako elizetxe zaharrea aurkituak izan zirenak ¹⁰².

Toponimiak ere lagunduko digu euskal giroa ezagutzen. Goian esan dugun bezala, Markotegi gaztearen aita eta anaiak 1788 urtean zenbait ondasun eman zizkiotenean, leku-izen eta etxe-izen multzo polit bat eskaini ziguten. Hemen aurkezten ditugu euskal toponimia eta oikonimiaren lekuko horiek ¹⁰³:

1. *Gasteluguibela*: alor edo soro bat ematen diote alderdi horretan, Urdaotz eta Aizpuren dermioekin mugatzen duela alorrak.

2. *Orron*: beste bat hor, Domingorena-k dituenekin eta herri larreekin «liecos comunes» mugatzen.

3. *Vdalondoa*: idem, herri larreekin mugatzen.

4. *Idesea*: idem, Vidaurretarena eta Dorrecoa etxeenekin mugatzen.

5. *Arana*: idem, Sastrearena eta Martibenecoa ¹⁰⁴ etxeenekin mugatzen.

6. *Aldapacoa*: idem, Martibenecoa ¹⁰⁵ eta Sastreanecoa etxeenekin.

7. *faceria*-n: idem, Sastrearena eta Bastaguillerena etxeenekin.

8. *San Esteban* ¹⁰⁶: idem, Dorrecoa eta Martinchorena etxeenekin.

9. *Andaizarreta*: idem, Apesanecoa eta Vidaurtenecoa etxeenekin.

10. Idibem (?): idem, Vrrizolanecoa eta Domingonecoa etxeenekin. Oharra. «Otra *luego* de tres rouadas ...» dio.

11. *Aribiz*: idem, Sastreanecoa eta Juan de Martienecoa etxeenekin.

12. *Vsaran*: idem, Dorrecoa eta Domingonecoa etxeenekin.

13. *Amunarrizbidegaña*: idem, Obianecoa eta Juan de Marzena etxeenekin.

14. *Andurain*: idem, Marchonecoa etxearenekin.

15. *Andia* eta *Vrbassa* ¹⁰⁷: borda eta ardiak gordetzeko estalpe bat.

Ollon bezala Goñin ere 1765 urtean egin zen parroku berria hautatzeko bozketa, eta han bezala hemen ere etxeen eta etxe jabeen izenak ematen dira. Markotegi zaharra Goñiko parroku bilakatu zen bozketa horren medioz. «Juan Antonio de Irissarri» izan da hemen ere eskribaua, eta 20 etxe-izen ematen dizkigu ¹⁰⁸. Hona etxeak eta beren jabeak:

1. *Apezanecoa*: Pablo de Asiain da jabea.

2. *Adriañena* (sin *-ñ*): Juan Joseph de Amezqueta, Munarrizko beneficiatua eta Iruñean *Religiosas Recoletas Descalzas* deituek duten komentuko kapilaua. Apaiza da.

3. *Bengochea*: Pablo de Amezqueta, subdiakonoa.

4. *Juan de Munarrizena*: Martin de Arteta, alarguna.

4. *Domingorena*: Juan de Arteta, alarguna, Juan Esteban de Goicoa eta Joseph de Arteta bere emaztea.

6. *Vidaurretarena*: Juan Migue Perez de Muniain, alarguna.

102. *Textos*.

103. IEA, Navarro 2375, 10, 3-4at. eta 8-13.

104. IEA, id., 3at. horrela, baina «*martinecoa*» 10at.

105. IEA, id., 3at. horrela, baina «*Marticonecoa*» 10at.

106. IEA, id., 3at., baina «*San Estevan*» 10at. Beherago «*Juan de Marzena*» 10at.

107. IEA, id., 3at., baina «*Vrbasa*» (-s-) 10at.

108. IEA, Ollo 1693, 22, 3-42at.

7. *Estebanecoa -Esteanecoa* 16at.-: Juan Miguel de Hugarte.
8. *Elcoiengoa*: Martin Franzisko de Marcotegui.
9. *Martinchorena*: Miguel de Garriz, alarguna, Fran[cis]co de Iriarte eta Fran[cis]ca de Garriz bere emaztea.
10. *Elizalderena*: Antonio de Garzaron, Elena de Legarra bere emaztea, eta Miguel Fran[cis]co de Marcotegui eta Maria Miguel de Garzaron bere emaztea.
11. *Martiberena*: Diego de Amezqueta.
12. *Errotacoa*: Martin de Echeuerria eta Theresa de Garriz bere emaztea.
13. *Lusicanecoa* (sic *Lusi*-): Juan de Ezquerria eta Ildefonsa de Irurzun bere emaztea.
14. *Zudaidereña* (sic *-de*-): Fernando de Iriarte eta Mathias bere semea.
15. *Saldisena*: Gaspar de Sagues, alarguna, Martin Joseph de Goñi eta Martina de Sagues bere emaztea.
16. *Sastrearena*: Maria Martina Ibañes (sic *-s*), alarguna, eta Fran[cis]co de Latiegui bere semea.
17. *Obearena*: Juan de Ezcurra, alarguna.
18. *Bastaguillerena*: Juan Miguel de Assiain (sic *-ss-*).
19. *Vrrizolareña*: Juana Maria de Goicoa, alarguna, Bar[tol]me de Arbizu eta Josepha de Goñi bere emaztea.
20. *Dorrecoa*: Juan Martin de Arbizu zaharra, alarguna.

3.3. 1791 urtean, *Plan Beneficial* delakoaren arabera, Azantzak 42 familia eta 128 *personas de comunión* ditu, parroquia eliza bat S. Martin apezpiku eta aitorlearen izena daramana, parroquia, bi *beneficio* eta sakristaua. Badago, gainera, kapilautza bat «dⁿ. Juan Josef de Goya», herriko semeak, eraikiarazia eta bere testamentu betetzaileria izan zen «dⁿ. Francisco de Abendaño»k eraikia. Bere ahaideen alde egin du hori eta 1140 dukateko baltza ipini du ¹⁰⁹.

1802an 206 lagun ditu, S. Martinen parroquia eliza, parroquia, bi beneficiatu eta bi baseliza: Magdalenarena eta S. Bartolomerena ¹¹⁰. 1857an 217 lagun ditu ¹¹¹ eta 1986an 54/55 ¹¹².

Markotegi gaztearen aurretik izan zuen parroquia Francisco Miguel Perez de Azanza izan zen. 1796an Francisco Perez de Azanza, *Miguel* gabe, izendatzen dute ¹¹³. Bere garaian egin zen *Plan Beneficial* deitua, eta 1813an hil zen ¹¹⁴, hurrengo urtean Markotegik hartzen zuela parroquia.

1797 urtearen inguruan Azantzan euskarak zuen egoera eta osasun ezin hobea beste lan batean azaldu genuen ¹¹⁵. Gorago aipatu dugun Jose de Goia eta Muniain-i esker dakigu horren berri. Urte horretan Zarauzko Ikastetxe-ko prantziskotarrek 14 egoneko misioa eman zuten herrian euskaraz. Bera han egon zen eta ikusirik misioaren medioz atera zen fruitua, agertzen du zazpi urtetik euskal misioa eraikitzeke asmo eta gogoia.

109. IEA, Navarro 2700, 9, 10-16.

110. *Diccionario*, I liburukia, s. u.

111. *Nomenclátor*, 217.

112. *GEN*, II, s. u.

113. IEA, Villar 2767, 4, 7at.

114. IEA, Navarro 2700, 9, estalkian eta 4 hh.

115. *Textos*, 119.

178

El día nueve de Julio del año de mil setecientos sesenta y seis nació, y en el día diez del mismo Bautizó solemnem.^{te} a Martín Joseph Maxcotequí hijo legítimo de Fran.^{co} Martín de Maxcotequí, y Martina de Arteta y el Presbítero infra-crito con licencia del Señor Abad de este lugar de Goni; fueron Padrinos D.^{no} Martín Joseph de Maxcotequí y Josepha de Arteta, les adrexi el parentesco espiritual, y lo demás que dispone el Ritual, Abuelos paternos Martín de Maxcotequí y María Miguel Berara dueños de la casa vecinal llamada Elcoyena, Maternos Juan de Arteta y Juana María Oroquieta dueños de la casa de Domingarena y Vecinos de este lugar y por la verdad firmamos dicho día, mes, y año ut supra

J.ⁿ Martín Joseph Maxcotequí

Mereno 2741, 10 zenb.
c. 1790.07.22.go aldaera

LABURPENEA

Endrike Knörr-ek *iker-6*, Euskaltzaindiak argitaratzen duen *iker* bildumaren 6 alean, 1777 urtean predikatutako testu baten egilezat Martin Josef Marcotegi ematen du, eta izen bereko bi apaiz aurkezten ditu, osaba-ilobak izan daitezkeenak. Artxiboetan aurkitu ditugun zenbait xehetasun ekartzen ditugu, osaba-iloben bizitzaren ezaguera zehatz eta handiagoa izateko. Ollon beren garaikide izan ziren parrokuen berri ere badakurgu, eta Ollo, Goñi eta Azantzako denbora haietako euskal giroa erakusten dugu.

RESUMEN

En *Iker-6*, es decir, en el número 6 de la colección *iker* que publica Euskaltzaindia, considera Endrike Knörr autor de los textos predicados en Ollo el año 1777 a Martín Joseph Marcotegi, y presenta a dos sacerdotes del mismo nombre, tío y sobrino probablemente. Investigando en los archivos, hemos intentado aclarar los detalles referentes al sobrino y tío: nacimiento, oficios, trabajos etc. Hemos hecho lo mismo con los párrocos de esas fechas de Ollo, Goñi y Azantza -la parroquia del sobrino- y ofrecemos algo del ambiente en torno al vascuente en esos pueblos.

RÉSUMÉ

Dans *Iker-6*, c'est à dire le numéro 6 de la collection *iker* publiée par Euskaltzaindia, Endrike Knörr attribue les textes prêchés à Ollo en 1777 à Martín Joseph Marcotegi, le même nom de deux prêtres, qui étaient probablement oncle et neveu. En faisant des recherches dans les archives, nous avons essayé d'élucider les détails correspondant au neveu et à l'oncle: date de naissance, métiers, oeuvres, etc... Nous avons fait la même chose pour les prêtres ayant vécu à cette époque à Ollo, Goñi et Azantza -paroisse du neveu- et nous offrons une notion de la réalité de la langue basque dans ces villages.

ABSTRACT

Endrike Knörr published in *iker-6*, a collection edited by Euskaltzaindia, some basque texts preached in Ollo in 1777. He mentions in his work two priests called Martin Joseph Marcotegi, probably uncle and nephew, the uncle being the author of the texts. We have looked for new details about them and give an account of those which we have found. We do the same with their contemporary parish priests in Ollo, and we offer a view of the situation of the basque language in Ollo, Goñi and Azantza.